

Zer arrazoi dago erabaki nahi izateko?

Legeak ez badu biderik ematen, zertarako balio du herritarren galdeketa bat antolatzeak?


Eta zergatik Getxon?



gureeskudagogetxo@gmail.com
<https://gureeskudagogetxo.com>

GETXON ADOS

**GURE
ESKU
DAGO**



Zer arrazoi dago erabaki nahi izateko?

Makina bat arrazoi dago. «Herri bat garelako», esaterako, herri bateko kide izatea azpimarratu gura badugu, edo «pertsona burujabea izan nahi dut, gizarte burujabe batean», non azpimarratzen dugun herritar libre, gure orainaren eta geroaren protagonista eta jabea izateko borondatea. Baina, batez ere, pertsonak eta gizarteak erabakitzeko eskubidea dugulako, eta eskubideak, ezin badira bete, ez direlako benetakoak.

Baina baita demokrazian botoa ematea normala delako, ezta?

Bai, horrela da, botoa emanez erabakitzen dute demokratikoki antolatutako gizarteak; hautetsontzia da ezberdinen arteko topagunea, proiektu ezberdinak elkartzen diren zubia, eta hor gehingoaren legeak eta gutxiengoarekiko begiruneak gobernatu behar dute, inposizioarik gabe.

Eta legeak ez badu biderik ematen, zertarako balio du herritarren galdeketa bat antolatzeak?

Eskubide bat ukatzen denean, herritarrok exijitu behar dugu eskubide hori betetzea. Horrela egin zuten Rosa Parks-ek edo Kathrine Switzer-ek, edo botoa emateko edo hautatuak izateko eskubidea exijitu zuten emakumeek, edo nahitaezko soldadutzari aurre egin zioten gazteek, edo lehendabiziko ikastolak sortu zituzten gizon-emakumeek...

Eta zergatik Getxon?

Getxon ere herritarren garaia delako, eta galdeketa gure bozgoragailurik onena izan daiteke erabakitzeko eskubidearen eta hura egikaritu ahal izatearen defentsan lanean segitzeko eta hazten jarraitzeko.

Baina baita gure iraganagatik ere: Galdeketa bidez orainera dakargun gure historia: Getxoko Udabatzak 1931n, Jose Antonio Agirre alkate zela, Euskal Errepublika aldarrikatu zuen «[...] herriek beren burua determinazio librean gobernatzeko duten eskubide natural eta ezin kenduzkoaren arabera».

Eta gure orainagatik: Getxoko gehiengoak herritarren erabakitzeko eskubidea defendatzen duten alderdiak bozkatzeko dituzten hauteskunderik hauteskunde.

Eta gure etorkizunagatik: Getxo, duen garrantzi politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalagati, ezin delako gelditu Euskal Herrian zabaltzen ari den galdeketa demokratikoen olatutik kanpo.

Azken buruan, Getxon ere posible da Euskal Herriaren estatus politikoari buruzko galdeketa bat egitea.

Gu prest gaude. Eta zu?

**GETXON
ADOS** : **GURE
ESKU
DAGO**